

**BILBON SALGAIK BANATZEKO EDO BESTE JARDUERA BATZUETARAKO
FURGOI EDO FURGONETA ELEKTRIKO BERRIAK ESKURATZEKO DIRU-
LAGUNTZETARAKO DEIALDIA**

2024

1. ARTIKULUA. XEDEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioen arloan, diru-laguntzen lerro baterako deialdia egin du, Bilbon salgaiak banatzeko edo beste jarduera batzuetarako furgoi edo furgoneta elektriko berriak erosteko edo renting bidez eskuratzeko.

Honakoa da deialdiaren xedea: dirulaguntzak ematea, furgoi edo furgoneta % 100 elektrikoak eskuratzeko, Bilbon lan egiteko, eta, hala, laguntzea airearen kalitatea hobetzen, zaratazko kutsadura urritzen eta berotegi-efektua eragiten duten gasen isuria eta energiaren kontsumoa urritzen.

Diru-laguntasuna emango da ibilgailu berrien jabetza eskuratzeko, edo finantzazko leasing bidez edo renting alokairu bidez finantzatuz eskuratzeko (leasing operatiboa ere deitzen zaio).

2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako diru-laguntzak arau hauen pean daude: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko Orokorra, eta lege hori garatzeko Erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretu uztailaren 21ekoaren bidez onetsia; eta Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko entitate eta organismoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, 2016ko ekainaren 30ean Udalbatzarrek onetsitako ordenantza orokorraren bidez onetsiak (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2016ko uztailaren 20ko alean, 138. zenbakikoan).

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Dirulaguntza honen onuradun izan daitezke Bilbon salgaiak banatzen dituzten, edo Bilbon aldiro eta modu erregularrean zirkulatzea eskatzen duen beste jardueraren bat egiten duten enpresak edo autonomoak, honetarako furgoi edo furgoneta % 100 elektriko berri bat eskuratu nahi badute, edo hura renting edo leasing bidez kontratatatu badute, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arteko epean.

Furgoi edo furgoneta dela joko da ibilgailuen IATrako sailkapenean 2 / 24 ibilgailu motaren kodearekin sailkatutako ibilgailua ("salgaiak garraiatzeko ibilgailua, kabina karrozerian integratua duena, eta gehienezko masa baimendua 3.500 kg-koa edo txikiagoa duena").

Finantza eragiketen bidez eskuratzen badira (hau da, leasing/renting bidez), dirulaguntza jasotzeko eskubidea izatekotan, renting kontratuetan penalizazio klausula bat egon beharko da jasota ezerezte aurreratuaren kasurako, eta gutxienez ordaintzeko dauden kuoten % 50 izan beharko da penalizazio hori, kasu horretarako. Gainera, renting bidezko alokairuko kontratuak gutxienez 4 urtekoak izango dira. Ibilgailu erabiliak alokatzen badira renting-aren bidez, ez da dirulaguntzarik jasoko.

Eskatzaileak ezingo dira onuradunak izan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. apartatueta adierazitako debekuren baten eraginpean badaude.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan ezarritako betebeharrek bete beharko dituzte. (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra).

Dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, onuradunak bereziki egiaztatu behar du egunean dela zergak ordaintzeko betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan.

Ez da dirulaguntzaren ordainketa gauzatuko, baldin eta, hura izapidetzeko orduan, artean ere diru-laguntza eskatu duena ez badago egunean Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta zerga-betebeharretan.

Deialdi honen onuradunek honako betebeharrek bete behar dituzte:

- Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari jakinarazi beharko diote dirulaguntzaren xede den ibilgailuaren matrikula, diruz lagundutako ibilgailu moduan Bilbon lanean hasten denetik bi aste igaro baino lehen.
- Ibilgailu elektrikoa 4 urtean eduki beharko dute Bilbon salgaiak banatzeko jardueran.
- Diruz lagundutako ibilgailuaren monitorizazioa helarazi beharko dute gutxienez 4 urtean zehar. Monitorizazio horren bidez, Udalak bermatuko du ibilgailua hirian jarduten dela. Onuradunak ibilgailuaren lokalizazioa helaraziko du 10 segundorik behin, bere bitartekoekin (egokitu egingo da horretarako ibilgailuen kontrolerako azpiegitura, baldin eta halakorik badauka, eta Udalak informazioa biltzeko duen web zerbitzu batekin integratuko da), edo Udalak emandako monitorizazioko aplikazio bat erabiliz (onuradunak gidarien gailu mugikorretan instalatu beharko du aplikazio hori); gidariak izango du aplikazio hori behar bezala erabiltzeko erantzukizuna.
- Eskabidean adierazitako kilometroen % 80a egin beharko du lanean, hilero-hilero, dirulaguntza jaso eta ondorengo 4 urteetan zehar (gutxienez 500 km adierazi beharko dira eskabidean)

5. ARTIKULUA. AURREKONTU-KREDITUAK

1.- Deialdiko dirulaguntzak, Bilboko Udalaren 2024rako aurrekontu onartuaren partida honen kontura finantzatzeko dira: 2024-21000-17230-771900, PEP 2024/00105.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa BERROGEI ETA HAMAR MILA (50.000) eurokoa da.

3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, ez da laguntza gehiago emango harik eta aurrekontuan beste diru-hornidura bat baimendu arte; Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da hala gertatzen bada.

4.- Zenbat eskabide aurkeztzen diren, aukeran izango da aurrekontu-hornidura handitzea, beste deialdirik egin beharrik barik.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1.- Laguntzaren zenbatekoak kontzeptu bakar bat du:

- Furgoi edo furgoneta % 100 elektrikoa eskuratzea: Hamabi mila (12.000) euro ibilgailu bakoitzeko.

2.- Onuradun bakoitzak laguntza eskatu ahal izango du, gehienez ere 3 (hiru) furgonetatarako.

7. ARTIKULUA. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRIAK IZATEA

1.- Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen Administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, den nazionala, Europar Batasuneko edo nazioartekoa.

2.- Nolanahi ere, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diruz lagundutako ibilgailuaren kostua, nahiz berak bakarrik, nahiz beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

3.- Onuradunek udal ebazpenaren ondoren beste administrazio publiko batzuek ematen dituzten dirulaguntzak jasotzen badituzte proiektu bererako, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, hilabete baino lehenago, dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik.

8. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da udalaren webgunean (www.bilbao.eus); Bilboko Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoan, San Agustin Eraikinean; Barrutiko Udal Bulegoetan, ohiko ordutegietan; Bilboko Udalaren gardentasun atarian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean.

Dirulaguntzak eskuratu nahi dituztenek, beraz, eskabidea (I. eranskina) aurkeztu behar dute agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen NANaren kopia, eta pertsona juridikoa badira, IFZaren kopia.
- b) Ibilgailua jabetasunean eskuratzearen kasuan: Ibilgailuaren aurrekontua. Ibilgailua finantza eragiketa baten bidez eskuratzearen kasuan: Alokairu kontratua.
- c) Erantzukizun peko adierazpena, 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua onuradun izateko ezartzen dituen debekuetako batek ere eragiten ez diolako (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra). (II. eranskina).
- d) Erantzukizun peko adierazpena, ibilgailua Bilbon eta gutxienez 4 (lau) urtean salgaiak banatzeko baliatuko delakoa. (II. eranskina).
- e) Udalari berariaz emandako baimena, betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izanari buruzko datuak biltzeko. II. eranskina.
- f) Aurreko atalean aurreikusitako baimena ematen ez bada edo Udalak ezin baditu ziurtagiriak lortu, orduan tributuzko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko

betebeharrei dagokienez egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu behar dira, hurrenez hurren, eskumena duen Tributu Administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak urte horretan eginak.

- g) "Hartzekodunen fitxa", behar bezala beteta, eta bankuko kontuaren titulartasuna justifikatzen duen agiria. (III. eranskina).
- h) Bestelako laguntzarik eskatu bada, eskatutako laguntzen gaineko erantzukizunpeko aitorpena. (IV. eranskina).

2.- Eskaerak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein erataria (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

3.- Eskaerak aurkezteko epea, berriz, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da. Nolanahi ere, eta aurrekonturik dagoen kontuan hartu gabe, eskaerak aurkezteko epea ehun eta laurogei egunekoa izango da dirulaguntza BAO-ean kaleratzen denetik. Informazioa Udalaren webgunean ere eskuragarri dago (www.bilbao.eus/ Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila).

9. ARTIKULUA. LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA

1.- Dirulaguntzetarako deialdi honetarako gordetako aurrekontu-kreditua deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei banatuko zaie, 7. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera, eta aukera hori zabalik egongo da aurrekontuaren zuzkidura agortu bitartean.

Diru-laguntzak emateko erabakian lehentasun ordenari begiratuko zaio, eta ordena hori, aldi berean, eskaera deialdian adierazitako dokumentu guztiekin aurkezten den dataren eta orduaren arabera izango da, edo, eskatutako agiriren bat faltatuz gero, hura aurkeztutako dataren arabera.

2.- Prozedura bideratzeko eskumena duen organoa Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Garraioen Zuzendariordeak lotutako langile teknikoek osatua izango da.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du, ziurtatu ondoren ezen:

- Onuradunak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela.
- Onuraduna egunean dagoela bere tributuzko betebeharrei eta Gizarte Segurantzaren alorrekoiei dagokienez, eta ez duela tributuen arlokoinolako zigorririk edo zorrik Udal honekin epe exekutiboan, salbu eta atzeratuta badago, zatikatuta badago edo betearazpena etena badago.

3.- Gobernu Batzordeak edo hark eskuorde izendatutakoak ebatziko du prozedurari buruz.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik, edo dokumentuak zuzentzeko eskatu bada, horiek zuzenduta aurkezten direnetik zenbatzen hasita.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igaro ondoren, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahal izango da.

Eskatutako dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpenarekin amaitzen da administrazio-bidea.

Ebazpenaren kontra, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa,

administrazioerekiko auzien epaitegien artean dagokionaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

4.-Prozedura izapidetzeko eta ebazteko egintzak banan-banako jakinarazpen bidez jakinaraziko dira.

5.- Deialdi honetan onartu diren dirulaguntzen guztirako kopurua txikiagoa bada dirulaguntza hauetarako jarritako kopurua baino, orduan soberakina Bilboko taxi zerbitzuko ibilgailuak egokitzeko diru-laguntzen deialdiari batuko zaio.

10. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren Ordezkaritzak emango du onartutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena, eta onuradunari jakinaraziko zaio; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan bere izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua.

11. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Ibilgailua eskuratuta egon beharko da 2024eko abenduak 31erako, eta horren justifikazioa, gehienez ere, bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, erosketaren fakturaren egunetik, edota, ibilgailua adierazitako data baino lehenago eskuratu bada, dirulaguntza eman zaiola ziurtatzen duen jakinarazpenaren egunetik.

Dirulaguntzaren justifikazioa:

- Ibilgailuaren erosketaren ordainagiria, eskatzailearen izenean, edo ibilgailuaren leasing/renting kontratua, eskatzailearen izenean, kasu bietan ere 2024ko urtarrilaren 1aren eta 2024ko abenduaren 31aren arteko dataduna
- Ordainagiria osorik ordaindu izanaren frogagiriak edo erosketa finantziatu izanaren kasuan maileguaren kontratua, bestalde, leasing/renting-aren kasuan lehenengo bi kuoten frogagiriak.
- Gainerako informazio hau:
 - o Zirkulazio-baimena.
 - o IATaren fitxa teknikoa.
 - o Matrikula edo bastidore zenbakia.
 - o Ibilgailuaren marka.
 - o Modeloa.
- Bestelako laguntzarik eskatu bada, eskatutako laguntzen gaineko erantzukizunpeko aitortpena. (IV. eranskina).

12. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira ibilgailua erosteko gastuak, BEZa salbu, betiere a 38/2003 Lege Orokorraren 31.8 artikuluan adierazitako ondorioetarako (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen gaineko Orokorra).

13. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA

Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, edo deialdi honetan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkutatzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, diru-laguntza jasotzen den unetik aurrera.

Emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da noiz ere ez diren betetzen dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako betebeharretakoren bat edo batzuk, edo Dirulaguntzak emateko Oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorraren 19. artikuluan aurreikusitakoak, 38/2003 Legearen 37. artikularekin lotuta (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra).

Ibilgailua salgaiak banatzeko lanetik kentzen bada gutxieneko epea bete gabe, Udalari itzuli beharko zaio dirulaguntzaren zati proportzionala, adierazitako gutxieneko epea bete arteko tarteari dagokiona. Gutxieneko epe hori betetzen ez bada, dirulaguntzaren onuradunaren erantzukizuna izango da zati proportzionala itzultzea.

Monitorizazio betebeharra ez betetzea dela joko da noiz ere onuradunak guztira 4 hilabete egiten baititu epe horietako bakoitzari dagozkion kilometro monitorizatuak eskaeran hitz emandako % 80ra iristen ez direlarik.

14. ARTIKULUA. ESLEITUTAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak argitaratuko dira udalaren web-orrian.

Era berean, dirulaguntzen publizitatea egingo da Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, Dirulaguntzen Lege Orokorrek ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2024ko otsailaren 2ean
Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila